

HIZKUNTZA PRESTAKUNTZA BERARIAZKO IKASTAROAK	
MODALITA TEA:	AURREZ AURRE
HIZKUNTZA:	EUSKARA

4. HE: AHOZKO JARDUNEAN HOBETZEKO IKASTAROA

INFORMAZIO OROKORRA

DATAK	Martxoak 1, 6, 8, 13, 15, 20, 22, 27 Apirilak 3, 5	IKASGELA/ TOKIA	27. gela, IVAP Eusko Jaurlaritzaren Donostia-San Sebastian kalea, 1 Vitoria-Gasteiz
IRAUPENA	20 ordu	ORDUTEGIA	08:00-10:00
MATRIKULA EPEA	Otsailaren 15era arte	ONIRITZI EPEA	Otsailaren 22ra arte
IKASLE KOPURUA	12 gehienez ere	HARTZAILEAK	EAEko Herri Administrazioetako langileak. Derrigorrezkoa da 4. HE egiaztatuta izatea.
IRAKASLEA ETA DISEINUA	AEK		

ZER LORTU NAHI DA

HELBURU OROKORRAK Langileek hizkuntza ez erabiltzeagatik galdu duten ahozko jariora berreskuratzea, langileak motibatzea euskara lanean ahoz erabiltzeko eta euskara erabiltzeko beldurrak kentzen laguntzea.

HELBURU ZEHATZAK Laguntza eskaintzea hizkuntza zuzen eta egoki erabiltzeko eguneroko jardueran.
Ahozko erregistroaren berezko ezaugarriak eta baliabideak jabetzea.
Mintzamenean errepikatzen diren akatsak zuzentzea.
Lan arloko hiztegia lantzea.

PROGRAMA ETA EBALUAKETA

METODOLOGIA Teoria eta praktika uztartuko dira ikastaroan zehar, nahiz eta alde praktikoak lehentasuna izango duen.

**IKASTAROAREN
EZAUGARRIAK** Ahozko jariora lantzeko ikastaroak aurrez aurrekoak izango dira. Ikastaro horiek lanorduen barruan izango dira.
Ahozko jariora lantzeko ikastaroan bi osagai hartuko dira kontuan: osagai espezifikoa, laneko egoera eta egin behar arruntak; osagai orokorra, hizkera formala.



HIZKUNTZA PRESTAKUNTZA BERARIAZKO IKASTAROAK	
MODALITA TEA:	AURREZ AURRE
HIZKUNTZA:	EUSKARA

4. HE: AHOZKO JARDUNEAN HOBETZEKO IKASTAROA

PROGRAMA

- Testuinguruaren elementuak:
enuntziatzailea, enuntziataria, xedea, erabilera-esparrua eta testu-generoa.
- Diskurtsoaren garapena:
 - eskema eta edukia
 - sarrera on baten garrantzia
 - ahozkorako kohesio elementuak
- Sekuentzia motak:
 - Kontatu, azaldu ala argudiatu egin behar dut?
- Publikoa erakartzeko amarruak:
 - adibideak, umorea
 - ikus-entzunezkoen erabilera
- Adierazkortasuna:
 - ahotsa, pausak
 - ez-hitzezko komunikazioa
- Egoeren praktika

EBALUAKETA

Ikastaroan zehar betetako eginkizunak hartuko dira kontuan ebaluatzeko orduan.

IKASTAROAREN BALORAZIOA

- Ikasleen gogobetetze inkesta
- Irakaslearen balorazio inkesta

ZIURTAGIRIA: APROBETXAMENDUA

- %80ko bertaratzea eta aprobetxamendu proba gainditzea

PREZIOA

186 €

AGINDUA, 2014ko abenduaren 11koa, Herri Administrazio eta Justiziako sailburuarena, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak ematen dituen jarduera eta zerbitzuen prezio publikoen zenbatekoa ezartzen duena.
EHAA, 2014ko abenduaren 30ekoa, 248. zk.